h) Impartición de charlas, conferencias, etc. a requerimiento de los Servicios Sociales de Ayuntamiento de Bermeo y del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

*B.- Horario y día de atencion*

El día y horario de atención a las personas usuarias será el siguiente:

- MIERCOLES

9 A 14 HORAS

TERCERO.- Personas beneficiarias

a) Mujeres víctimas de violencia machista y agresiones sexuales.

b) Menores víctimas de de violencia machista y agresiones sexuales, no objeto de protección por parte del Servicio de Infancia del Departamento de Acción Social.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aipatutako egoera horietakoren batean dauden pertsonek Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi beharko dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Emakumeak babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak bideratutako Laguntza Psikologikoko Zerbitzuan artatuko dira.

Onuradunak aldatu ahal izango dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren 2.7.5 fitxaren esparruan.

LAUGARRENA.- Lankidetzaren edukia.

Hitzarmen honek erakunde arteko lankidetza arautzen du, Bermeoko Udalak 185/2015 Dekretuko lehen mailako arretako prestazioak gara ditzan (185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa). Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eta lankidetza eska dezake indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko.

Hitzarmen honen xedea betetzeko, berau sinatu duten alderdiek hurrengo konpromisoak hitzartu dituzte:

*Bermeoko Udaletxearen aldetik:*

Bermeoko Udalak konpromisoa hartu du Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren esku bulego bat jartzeko, behar bezala egokituta, erabiltzaileen intimitatea zainduko duena (arreta jasotzen ari diren pertsonak identifikatzea galaraziko duten biniloak edo oztopo bisualak izango dituena, eta zerbitzua emateko ekipatuta egongo dena).

Las personas que se encuentren en una de las mencionadas situaciones deberán residir en el Territorio Histórico de Bizkaia y serán atendidas en el Servicio de Atención Psicológica por derivación del Servicio de Mujer e Intervención Familiar del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Las personas beneficiarias podrán ser modificadas en el marco de la ficha 2.7.5 del Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

CUARTA.- Contenido de la colaboración.

El presente convenio implica una colaboración insterinstitucional para el desarrollo por parte del Ayuntamiento de Bermeo de las prestaciones de atención primaria del Decreto 185/2015, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema de Servicios Sociales 185/2015, pudiendo recabar el Ayuntamiento el apoyo y colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia para una atención integral de las mujeres víctimas de violencia machista..

Para la consecución del objeto del pre-sente Convenio, las partes suscribientes convienen los siguientes compromisos:

*Por parte de Ayuntamiento de Bermeo:*

El Ayuntamiento de Bermeo se compromete a poner a disposición del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia un despacho debidamente acondicionado, que preserve la intimidad de las personas usuarias (disponiendo de vinilos o barreras visuales que impidan la identificación de las personas que están siendo atendidasl, y equipado para la prestación del Servicio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bulegoa zerbitzua emateko behar diren altzariak (mahaiak, aulkiak, etab.) izan beharko ditu, ekipamendu informatikoa izan ezik.

El despacho deberá estar equipado con el mobiliario (mesas, sillas, etc) necesario para la prestación del Servicio, excepto equipamiento informático.

Bermeoko Udalak bulegoan sartzeko beharrezkoak diren bitartekoak (giltzak/txartela) emango dizkio talde profesionalari, eta espazioaren garbiketa kudeatuko du.

El Ayuntamiento de Bermeo facilitará al equipo profesional los medios necesarios para el acceso al despacho (llaves/tarjeta) y gestionará la limpieza del espacio.

*Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik:*

*Por parte de la Diputación Foral de Bizkaia:*

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartu du arreta psikologikoko programa emateko eta koordinatzeko talde profesionala jartzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia se com-promete a aportar el equipo profesional para la prestación y coordinación del Programa de Atención Psicológica.

Lankidetza-hitzarmen honetan, astean **gehienez 5 ordu jasotzen dira**, Arreta Psikologikoko Programaren prestaziora bideratzeko.

Este Convenio de Colaboración contempla hasta un **máximo de 5 (horas) horas semanales** a destinar a la prestación del Programa de Atención Psicológica.

Bizkaiko Foru Aldundiak hitzorduak kudeatzeko konpromisoa hartzen du (eraikinera sartzeko ateak irekitzea, erabiltzaileari harrera egitea eta arreta amaitutakoan laguntzea), baina horrek ez die gainkarga eragingo Bermeoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileei.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a gestionar las citas (apertura de puertas de acceso al edificio, recepción de la persona usuaria y acompañamiento una vez finalizada la atención) sin que esto suponga una sobrecarga para el personal de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Bermeo.

*BOSGARRENA.- Koordinazioa eta Jarraipen Batzordea*

*QUINTA.- Coordinación y Comisión de Seguimiento*

Programaren ardura duen taldeak komunikazio arina eta iraunkorra izango du Bermeoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Emakume eta Familia Esku-hartze Zerbitzuarekin, dagokion koordinazioa lortze aldera.

El equipo responsable del Programa esta-blecerá una comunicación fluida y perma-nente con el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Bermeo y el Servicio de Mujer e Intervención Familiar del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, en aras a conseguir la coordinación oportuna.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

JARRAIPEN BATZORDEA

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.f) artikuluan xedatutakoa betez, batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko bi ordezkarik eta Bermeoko Udaleko bi ordezkarik osatuko dute.

Alderdiak ados jarrita hartuko dira batzordearen erabakiak.

Batzordea urtean behin gutxienez bildu ahal izango da, eta hauek izango dira bere eginkizun orokorrak:

a) Alderdietako bakoitzaren konpromisoei dagokienez sor litezkeen interpretazio desberdinei irtenbidea ematea.

b) Hitzarmena interpretatzea eta betetzen dela egiaztatzea.

c) Bere funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta egokitzat jotzen dituen aldaketa-proposamenak egitea.

d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoa aplikatuz legokiokeen beste edozein eginkizun.

*SEIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.*

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, eta sinatzen den egunean jarriko da indarrean.

Isilbidez luzatuko da urtez urte, gehienez ere lau urtera arte, alderdietako batek berariaz salatzen ez badu behintzat hasierako iraungipena edo luzapenetako bat baino bi (2) hilabete lehenago.

ZAZPIGARRENA.-Hitzarmena desegitea.

COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

En cumplimiento de lo dispuesto en el articulo 49.f) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, se constituirá una Comisión que estará integrada por dos representantes de la Diputación Foral de Bizkaia-Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y dos representantes del Ayuntamiento de Bermeo.

Las decisiones de la Comisión se tomarán por consenso entre las partes.

La Comisión podrá reunirse, al menos, una vez al año y sus funciones generales serán:

a) Resolver las diferencias de interpretación que pudieran surgir respecto de los compromisos de cada una de las partes.

b) Interpretar y vigilar el cumplimiento del convenio.

c) Realizar el seguimiento y evaluación de su funcionamiento y formular las propuestas de modificación que consideren oportunas.

d) Cualquier otra que le pudiera corresponder en aplicación de lo previsto en la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

*SEXTA.- Vigencia del Convenio.*

El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años, entrando en vigor en la fecha de su firma.

Se prorrogará tácitamente por períodos anuales hasta un máximo de cuatro años, salvo denuncia expresa por alguna de las partes, formulada al menos con dos (2) meses de antelación a su expiración inicial o a la de alguna de sus prórrogas.

SÉPTIMA.- Rescisión del Convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmena bertan behera geldituko da ondoko kasuetan:

- Alderdi biak horretan bat etortzea; idatziz agerrarazi beharko dute.
- Hitzarmenaren xede diren jarduerak ezin egin izatea, legez edo arrazoi material-engatik.
- Hitzarmeneko klausulak modu la-rrian edo nabarmenean ez bete-tzea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea.
- Alderdietako batek hitzarmenari uko egitea. Bi hilabete aurretik jakinarazi behar du.

Serán causas de extinción del presente Convenio:

- El mutuo acuerdo de las partes que deberá ser instrumentado por escrito.
- La imposibilidad sobrevenida, legal o material, para desarrollar las activi-dades que constituyen su objeto.
- El incumplimiento grave o manifiesto de sus cláusulas.
- Cumplimiento del plazo de vigencia.
- La renuncia de una de las partes, con un preaviso de dos meses.

ZORTZIGARRENA.- Datuen-babesa

Hitzarmen honetan datuen babesari buruz aplikatu beharreko araubidea Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB araubidea da, pertsona fisikoak datu pertsonalen babesari dagokionez babesteari buruzkoa, eta, horrez gain, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Zerbitzua betetzeari lotutako datu pertsonalei dagokienez, hitzarmen honetako I. eranskinean ezarritakoa beteko da.

OCTAVA.- Protección de Datos.

La normativa aplicable al presente Convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

En relación con los datos de carácter personal afectos al cumplimiento del servicio se estará a lo dispuesto en el Anexo I del presente convenio.

BEDERATZIGARRENA.- Araubide juridiko eta eskumen aplikagarria.

Hitzarmen hau administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluan xedatzen denaren arabera, eta bertan xedatutakoari ez ezik, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie eta, bereziki, hauetan xedatutakoari:

Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa

NOVENA- Régimen jurídico y jurisdicción aplicable.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación, y, en particular, por lo dispuesto en:

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y en especial los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta, bereziki, 69. artikuluetan eta hurrengoetan dauden arauak, hitzarmen eta akordioei buruzkoak, erabiltzaileen eskubide eta eginkizun, jarduera printzipio orokor eta esku hartzeko oinarrizko prozedurari dagokienean.

- *185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa aratzen duena.*

Hitzarmenaren ekonomia eta aurrekontu araubideari dagokionez, hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

- *Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duena.*

169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zen, irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuan emandako idazkeraren bidez, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.

Azkenik, hauek ere aplikatuko dira:

- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzkoa.
- Otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua, Bizkaiko gardentasunari buruzkoa, zehazki, haren 2. eta 9. artikuluetan xedatutakoa.
- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako dena.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru

preceptos contenidos en el artículo 69 y siguientes, relativos a los convenios y acuerdos, en particular en lo referido a los derechos y deberes de las personas usuarias, principios generales de actuación y procedimiento básico de intervención.

- *El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, por el que se regula la cartera de servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales.*

Resulta aplicable, en lo que respecta al régimen económico-presupuestario del convenio, lo dispuesto en:

- *El Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.*

El Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, en redacción dada por el Decreto Foral 118/2018, de 4 de septiembre.

Por último, será de aplicación:

- La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, en particular, lo establecido en los artículos 2 y 9 de la misma.
- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria, y su Reglamento,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Hitzarmena garatu eta burutu bitartean aldeen artean sortzen diren eta hitzarmenean aurrez ikusitako Jarraipen Batzordean ezin ebatzi daitezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean edo, bidezkoa bada, araudi zibilean xedatu denarekin bat.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute.

Azken parte-hartzaileak sinatutako data hartuko da hitzarmen honen eraginkortasun-datatzat.

así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento prevista en el presente convenio, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa, o por la normativa civil, en su caso.

Y en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio.

Se establece como fecha de eficacia del presente convenio, aquella en la que hubiera firmado la última persona interviniente en el mismo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

DATUAK BABESTEKO I. Eranskina, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARENA

Anexo I DE PROTECCIÓN DE DATOS AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE BERMEO

Egin behar den datu pertsonalen tratamenduaren deskripzio orokorra:

Hitzarmen honen bidez, alderdi biek beren gain hartzen dituzte behean adierazten diren rolak eta erantzukizunak, eta hitzarmenari aplikatzekoak zaizkion DBEOn eta DBEDBLOn ezarritako estipulazioak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hitzarmen honek EZ du sorrarazten alderdien artean DBEOren 28. artikuluaren araberako inolako harremanik, alegia, tratamenduaren arduradun eta eragile izatearen harremanik; izan ere, alderdietako batek ere ez du datu pertsonalik tratatzen beste alderdiaren kontura.

Alderdiek honako konpromiso hauek hartzen dituzte datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia betetzeko, erakunde biak direlarik tratamenduaren arduradun:

I. Datu pertsonalen tratamendurako jarduerak baimentzea.

II. Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela zaindu eta kontrolatzea, bai tratamendua hasi aurretik, bai tratamenduan zehar eta *a posteriori*.

III. Tratamendu-eragiketen ikuskapenak, auditoriak eta eragiketa horiek datu pertsonalen babesean duten inpaktuaren ebaluazioak egitea, araudiari jarraikiz

IV. Behar diren kontsultak egitea aurretiaz.

V. Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideekin eta

Descripción general del tratamiento de datos personales a efectuar:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

El presente Convenio, no articula entre las partes una relación de responsables y encargados del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

Compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales. dada su calidad de ser ambas Instituciones responsables del tratamiento:

I. Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales.

II. Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

III. Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

IV. Realizar las consultas previas que en su caso, correspondan.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

edukiarekin bat tratatzea, eta eskura diren datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak zaintzea eta hartzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoaren esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

VI. Hitzarmena gauzatzeko tratatzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

VII. Tratamenduaren edozein fasetan BFAren eta IVAPen kontura esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebehar hori, eta, era berean, erakundeon ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki euren menpe dituzten pertsonak ohartaraztea sekretua gordetzeko eginbeharra dutela eta hura gordetzen jarraitu behar dutela jarduera bukatutakoan ere edo jarduerarekiko lotura galdu badute ere.

VIII. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak betetzeko. Horretarako, behar bezala eman behar zaie neurrion berri.

IX. Bermatzea tratamendua egiteko baimena duten pertsonek badutela prestakuntza nahikoa datu pertsonalen babesaren arloan.

V. Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Anexo 2 del Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

VI. Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales que pudiere tratar para la ejecución del convenio así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

VII. Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de la Diputación Foral de Bizkaia y del Ayuntamiento, siendo asimismo deber de las entidades instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.

VIII. Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que les debe informar convenientemente.

IX. Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

X. Datu pertsonalak ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea hirugarren batzuei, datuak kontserbatzeko denean ere ez, legez ezarritako kasuetan izan ezik.

XI. Hala dagokionean, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak babesteari dagokionez izendatu d(it)uen pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak komunikatzea, hau da, nor d(ir)en datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia arlo legal/formalei eta segurtasun-arloei dagokienez betetzeko erantzule.

XII. DBEOren 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion kontrol-agintaritzari komunikatuko dio —bere erantzukizun-esparruan eta beharrezkoa baldin bada —ahalik eta lasterren eta beranduenez 72 orduko epean, bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunean sumatzen duten edozein urraketa, eta baita informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo huts-egite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa den edozein informazio ere. Azkenik, halaber komunikatu beharko dio dena delako negozio juridikoa gauzatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharraren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa. Lehenbailehen emango du horri buruzko informazio xehea, are zehatz adieraziz ere zer interesdunek jasan duten konfidentzialtasun-galera bat.

XIII. Indarrean den araudiak eskatzen duen moduan erantzutea pertsona fisiko batek egikaritzen duenean datuen babesaren arloko eskubideetakoren bat (datuetan sartzekoa, datuak zuzendu, aurkaratu, ezabatu eta haien tratamendua mugatzekoa,

X. No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

XI. En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de la(s) persona(s) física(s) designada(s) por el responsable del tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las persona (s) responsable(s) del cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos personales, en las vertientes legales/formales y en las de seguridad.

XII. De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicará en su respectivo ámbito de responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tenga conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente. Comunicará con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

XIII. Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

automatizatutako erabaki indibidualizatuen xede ez izatekoa, edo aplikatzekoa den araudiak aitortzen dituen beste batzuk).

XIV. Bakoitzak bere betebeharrak betetzea segurtasun-neurriei dagokienez, segurtasun-arrakalak (gauzatu direnak zein egiten saiatu direnak) komunikatu eta/edo jakinaraztea dagokion agintaritzari, eta, hala denean, behar diren inpaktu-ebaluazioak egitea.

XV. Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinetan jasoko baitira, gutxienez, artikulu horrek aztergai dituen zirkunstantziak. Alde horretatik, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

- Hitzarmena sinatu duen beste pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harekin harremanetan jartzeko datuak.
- Eginiko tratamenduen kategoriak.
- Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-arlokoen azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:
- Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
- Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.
- Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna

individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

XIV. Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

XV. Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:

- Nombre y datos de contacto de la persona física o jurídica con la que se realice el convenio
- Categorías de tratamientos efectuados.
- Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:
- Seudonimización y el cifrado de datos personales.
- La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
- La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.
- El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

XVI. Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak izatea.

XVII. Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dute bi erakundeek.

XVIII. Klausula hau eta hemen ezarritako betebeharrak dira hitzarmen honen inguruan eratzen den datu pertsonalen tratamendua arautzen duen egintza juridikoa. Eranskin honetan adierazitako betebeharrak eta prestazioak direla-eta ez da dirurik ordainduko, hitzarmenean aurreikusitakoaz gainerakorik, eta hitzarmenaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, hitzarmena luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, hitzarmena amaitutakoan, sekretu-betebeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, prestazioaren exekuzioan zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

XIX. Hitzarmena formalizatuta dagoela, eta hura gauzatu bitartean, beharrezkoa bada bertan hizpatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, erakunde biek adieraziko dute zer aldatu edo egokitu nahi duten. Entitate biak eskatu denarekin ados egonez gero, dokumentu eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

XVI. Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.

XVII. Derecho de información: Ambas entidades en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

XVIII. La presente cláusula y las obligaciones aquí establecidas, constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución de la prestación.

XIX. Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el mismo, la ambas entidades señalarán los cambios que solicita modificar u adaptar. En caso de que ambas entidades estén de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un documento actualizado que recoja fielmente el detalle del tratamiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Y9FS-HEXL-CTGV-KIXU
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus